**HERRITARTASUN ARLOKO PROIEKTU PUNTUALETAKO TEKNIKARI BAT LAN-KONTRATUPEAN ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK. KONTRATAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LEHEN LANBIDE-ESPERIENTZIA IZATEKO PROGRAMAREN KARGURA EGINGO DA, EUROPAR BATASUNAREN NEXTGENERATIONEU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILENTZIA PLANAREN ESPARRUAN.**

## 1.- KONTRATUAREN HELBURUA, MODALITATEA ETA IRAUPENA.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko zuzendariaren ebazpen bidez, dirulaguntza eman zaio Eskoriatzako Udalari honako hau kontratatzeko:

- Herritartasun arloko proiektu puntualetako teknikaria.

Oinarri hauen helburua da herritartasun arloko proiektu puntualetako teknikari bat lan-kontratupean aldi baterako kontratatzeko hautaketa prozesua arautzea.

Kontratazioaren modalitatea praktika profesionala lortzeko prestakuntza izango da, eta 12 hilabeteko iraupena izango du.

## 2.- EGINKIZUNAK.

Lanpostuaren eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

**HERRITARTASUN ARLOKO PROIEKTU PUNTUALETAKO TEKNIKARIA.**

**Kultura- eta liburutegi-hedapena, irakurketarako animazioa eta liburutegiko dinamizazioa, kultura-proiektuetan parte hartzeko sustapena eta 2025eko Euskaraldia dinamizatzea.**

**DESKRIBAPENA**

1.- Ohiko liburutegi eredua eraldatu eta gaur egungo behar berriei egokitzea.

- Liburutegia ohikoak ez diren irakurleengana eta liburutegiko zerbitzuetara iristeko zailtasunak dituzten erabiltzaileengana iristeko jarduera-plana diseinatzea eta gauzatzea.
- Irakurketa sustatzeko ekimenak, mailegu kolektiboko zerbitzuen diseinua, maleta bidaiarien programak (egoitzak, eskolak...) eta antzeko esperientzia berriak aztertu, diseinatu eta gauzatzea.
- Liburutegira sartzeko oztopo soziokulturalak, ekonomikoak, fisikoak, geografikoak edo bestelakoak ezabatzeko informazioa eskaintzea eta ekimenak diseinatzea eta planifikatzea.

2.- Tradizioen sustapenarekin lotutako kultur jarduera berriak ezartzea.

- Hainbat adin-taldek kultura-jardueretan parte har dezaten sustatzeko proiektu berriak diseinatzen eta ezartzen laguntzea.
- Programatutako jardueren produkzioa kudeatzea.
- Udal brigadarekin koordinatzea jarduearen aurretik eta ondoren beharrezko den guztirako.
- Jarduera bera antolatzea eta ondo egin dadin zaintzea, muntatze- eta desmuntatze-lanak gainbegiratzea barne.
- Publizitatea eta komunikazioa diseinatu eta ezartzea.

3.- Euskaraldia ekimena dinamizatzea.

- Euskaraldiko Batzordea eratu, ahaldundu eta indartzeko ekimenak garatzea eta dinamizatzea.
- Udalaz gaindiko foroetan parte hartzea.
- Herritarrak ahobizi/belarriprest dinamikarako aktibatu eta prestatzea: izen ematea antolatzea eta antolatzaileen eta herriko boluntarioen lana koordinatzea.
- Herriko eragileei eta herritarrei Euskaraldia ekimena aurkeztea eta prestakuntza eskaintzea.
- Herri mailako komunikazioa planifikatzea.

4.- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

5.- Arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.

6.- Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

## 3.- LANPOSTUA BETETZEKO SISTEMA.

Izangaien azken hautaketa Udalak egingo du; lehenik eta behin, Lanbideren bidez jasotako eskabideak eskatutako baldintzekin erkatuta; eta, ondoren, egokitasun-probak eginez eta aurretik hautatutako izangaiek egiaztatutako merezimenduak baloratuta.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, hurrengo ataletan zehazten diren baldintzetan.

## 4.- KONTRATATU BEHARREKO PERTSONEN BETEKIZUNAK.

### 4.1.- BETEKIZUN OROKORRAK.

Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea.

b) 30 urtetik behera izatea.

c) 4.2 puntuan adierazitako tituluak izatea.

d) Praktika profesionala lortzeko prestakuntza-kontratu bat formalizatu ahal izateko beharrezko baldintzak betetzea, hau da, gradu ikasketak amaituta izatea kontratazio aurreko hiru urteetan.

e) Euskara: Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGAren baliokidea) egiaztatzea. Gaitasun hori honela egiaztatu ahal izango da:

- Dagokion ziurtagiria aurkeztuta edo
- Eskoriatzako Udalak helburu horrekin egingo duen proba eginez (lortutako akreditazioak ez du inolako baliorik izango deialdi honetatik kanpo).

### 4.2.- IZAN BEHARREKO TITULAZIOAK.

4.1.c) oinarrian xedatutakoaren arabera, izangaiek ondoren zehazten diren titulazioak edo horien titulazio baliokidea izan beharko dute:

- Gradua arte-, gizarte- edo hezkuntza-zientzietan.

## 5.- BAZTERTZEKO ARRAZOIAK.

Baztertzeko arrazoia izango da aurreko oinarrian ezarritako baldintza orokorrak eta espezifikoak ez betetzea.

## 6.- ESKABIDEAK.

Eskabideak LANBIDEren bulegoetan aurkeztu beharko dira, edo, telematikoki, LANBIDEren webgunean. Epea: irailaren 27ra arte (barne).

## 7.- HAUTAGAIEN AZKEN HAUTAKETA.

Kontratatuko den pertsona aukeratzeko, deialdi honetako 4. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituenak, prozedura hau erabiliko da:

7.1. Deialdia udalaren webgunean argitaratuko da, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonek Lanbiden izena eman dezaten deialdian ezarritako epean.

7.2. LANBIDEk hautagaien aurre-hautaketa egingo du, ezarritako irizpideen arabera.

7.3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Udal honetara bidaliko ditu Lanbidek aurrez hautatutako izangaien curriculum vitaeak.

7.4. Izangaien azken hautaketa Udalak egingo du, egokitasun-probak eginda eta hautagaiek egiaztatutako merezimenduak baloratuta.

## 8.- EPAIMAHAIA.

Hautaketa probetarako epaimahai kalifikatzailea ondoren esango direnek osatuko dute.

Horrela iritzitako probetarako, Epaimahaiak aholkulariak izenda ditzake.

**Epaimahaikideak:**

**Epaimahaiburua**

- Kultura teknikaria

**Mahaikideak**

- Euskara teknikaria
- Bibliotekako arduraduna
- Ordezkaritza sindikalak proposatutako langilea

**Idazkaria**

- Udalekoa edo berak eskuordetutako funtzionarioa

**9.- HAUTAKETA PROZEDURA**

**OPOSIZIOALDIA:** Baldintza guztiak betetzen dituzten izangaien artean hautaketa egingo da, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen proba baztertzaile baten edo gehiagoren bidez.

Lekua, eguna eta ordua Udalaren webgunean argitaratuko dira, hautaketa prozesurako onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda onartzen duen erabakiarekin batera.

Pertsonaren bat, deitua izanda, edozein ariketatan agertzen ez bada, automatikoki bertan behera geratuko da prozesuan parte hartzeko eskubidea.

Bi zati izango ditu:

**1. ZATIA: Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

Ariketa teoriko edo praktiko bat edo batzuk egitea. Jarraian egin ahal izango dira egun berean, eta Epaimahaiak ariketen arteko atsedenaldia eman ahal izango du.

60 puntu emango dira gehienez, eta gutxienez 40 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

**2. ZATIA: Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

Lehenengo zatia gainditzen dutenek aurreko ariketen ahozko aurkezpena egin beharko diote epaimahaiari elkarrizketa batean.

Balorazioa egiteko, epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Azalpenen argitasuna (diskurtsoa ulertzeko eta jarraitzeko erraztasuna, azalpena ondo egituratzea).
- Laburtzeko eta emandako denborara egokitzeko gaitasuna.
- Argudiatzeko gaitasuna (azalpenean eta iruzkinen eta galderen aurrean).

20 puntu emango dira gehienez, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

**LEHIAKETALDIA:** Aldi honetan, oposizioaldi osoa (probak + elkarrizketa) gainditu duten izangaiek alegatutako merezimenduak baloratuko dira, 18 puntu gehienez, eta irizpide hauek hartuko dira kontuan:

**a) Titulazioa:** gaiarekin zerikusia duen eta kontratuaren oinarri den titulazioaz bestelakoa den titulazioa edukitzeagatik, baremo honen arabera puntuatuko da:

- Unibertsitate-master ofiziala edo graduondoko ikasketak: 5 puntu
- Ez dira baloratuko eskatutako titulazioa eskuratzeko bidea izan diren titulazioak.

**b) Ikastaroak:** 3 puntu emango dira, gehienez, institutu edo eskola ofizialek, enpresek edo gizarte-eragileek antolatutako, emandako edo homologatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroetan parte hartzeagatik, betiere deitutako plazaren eginkizunekin lotura zuzena baldin badute eta 20 ordutik gorako iraupena izan.

- 21 ordutik 60ra: 1 puntu.
- 61 ordutik 90ra: 2 puntu.
- 90 ordutik gora: 3 puntu

**c) Laneko esperientzia:** 10 puntu emango dira, gehienez, deitutako lanpostuaren eginkizunekin

lotura zuzena duen lan-esperientziagatik:

- 3 hilabeteraino: 2 puntu
- 6 hilabeteraino: 4 puntu
- 12 hilabeteraino: 6 puntu
- 18 hilabeteraino: 8 puntu
- 24 hilabeteraino: 10 puntu

## 10.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Izangai bakoitzak bi aldietan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Berdinketa gertatuz gero, honako hauek izango dute lehentasuna:

1. Eskoriatzan erroldatutakoek.

2. 30 urtetik gertuen daudenek.

Epaimahaiak ikusiko balu izangai batek berak ere ez duela beharrezko gutxieneko baldintzak betetzen lanpostuko funtzioak behar bezala betetzeko, kontratazioa bete gabe gelditu daiteke.

Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten eta kontratatzen ez diren izangaiak itxaron-zerrendan geratuko dira, deialdi honetan hasieran kontratatutako pertsonen artean bajak egonez gero, horiek bete ahal izateko.

## 11- KONTRATAZIOA.

Organo eskudunak lanposturako egingo den zerrendako lehena kontratatuko du, 12 hilabetez, lanaldi osoan.

## 12.- GORABEHERAK.

Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan eta horien legedi osagarrian aurreikusi gabeko guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

## 13.- INPUGNAZIOAK.

Deialdi hau, oinarriak eta horien eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz egindako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako epe eta moduan.

## 14.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Informazioaren tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babeserako erregelamendu orokorra) indargabetzen duena,

ezarritakoari lotuko zaio eta baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoari ere.

Eskaeran jasotako datu pertsonalak hautaprobak eta horretarako behar diren komunikazioak kudeatzeko eta hautaketa-prozesu horiei buruzko datuak aztertzeko erabiliko dira.

Nortasun-agiriko izena, abizenak eta zenbakia argitaratzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eskatzen den anonimizazioa errespetatuko da. Eskoriatzako Udalak neurriak hartuko ditu Interneteko bilatzaileek informazio hori indexatu ez dezaten.

Eskatzaileen datuak babesteko eskubideak gauzatzeko, bide elektronikoa erabili ahal izango da tratamenduaren arduradunarengana jotzeko, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo, aurrez-aurre, erregistroen arloko laguntza-bulegoen sarearen bidez.

Tratamenduaren arduradunak datuak babesteko araudia beteko ez balu, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

**BASES QUE HAN DE REGIR EL PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN LABORAL TEMPORAL DE UN TÉCNICO/A DE PROYECTOS PUNTUALES DEL ÁREA DE CIUDADANÍA, CON CARGO AL PROGRAMA DE PRIMERA EXPERIENCIA PROFESIONAL EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS, EN EL MARCO DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA-NEXT GENERATION EU**

## 1.- OBJETO, MODALIDAD Y DURACIÓN DE LOS CONTRATOS.

Por Resolución de la Directora de Activación Laboral de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo se ha concedido una subvención al Ayuntamiento de Eskoriatza para la realización de los siguientes contratos:

- Técnico/a de proyectos puntuales del área de Ciudadanía

Es objeto de las presentes bases el regular el proceso de selección para la contratación de un técnico/a de proyectos puntuales del área de ciudadanía, en régimen laboral temporal.

La modalidad de contratación será la de formación para la obtención de la práctica profesional, con una duración de 12 meses.

## 2.- FUNCIONES A DESARROLLAR.

Las funciones principales del puesto serán las siguientes:

**TÉCNICO/A DE PROYECTOS PUNTUALES EN EL ÁREA DE CIUDADANÍA**

**Difusión cultural y bibliotecaria, animación lectora y dinamización bibliotecaria, promoción de la participación en proyectos culturales y dinamización de Euskaraldia 2025.**

**DESCRIPCIÓN**

1.- Transformar el modelo de biblioteca tradicional adaptándolo a las nuevas necesidades actuales.

- Diseño y ejecución del plan de actuación para acercar la biblioteca a lectores no habituales y usuarios con dificultades de acceso a los servicios bibliotecarios.
- Estudio, diseño y ejecución de nuevas experiencias de fomento de la lectura, diseño de servicios de préstamo colectivo, programas de maletas viajeras (residencias, escuelas...) y similares.
- Diseñar y planificar iniciativas y ofrecer información para eliminar barreras socioculturales, económicas, físicas, geográficas o de otro tipo de acceso a la biblioteca.

2.- Implementación de nuevas actividades culturales relacionadas con la promoción de las tradiciones

- Diseñar e implementar nuevos proyectos que promuevan la participación de diferentes grupos de edad en actividades culturales.

- Gestionar la producción de las actividades programadas.
- Coordinación con la brigada municipal para todo lo necesario antes y después de cada actividad.
- Organizar la actividad y velar por su correcto desarrollo, incluyendo la supervisión del montaje y desmontaje.
- Diseño e implantación de la publicidad y comunicación

3.- Dinamizar la iniciativa Euskaraldia.

- Dinamización de iniciativas para la constitución, empoderamiento y fortalecimiento de la Comisión de Euskaraldia
- Participar en los foros a nivel supramunicipal
- Activar y preparar a la ciudadanía para la dinámica ahobizi/belarriprest: Organizar la inscripción y coordinar el trabajo de los organizadores y del voluntariado local
- Presentación de la iniciativa Euskaraldia a agentes locales y ofrecerles formación.
- Planificación de la comunicación a nivel local.

4.- Organizar el trabajo para garantizar el cumplimiento de los objetivos establecidos.

5.- Asistir al resto del personal adscrito al área en los casos de acumulación de tareas, ausencia o enfermedad.

6.- Realizar cualesquiera otras tareas propias de su categoría que le sean encomendadas, previa instrucción al efecto.

## 3.- SISTEMA DE PROVISIÓN.

La selección final de los candidatos/as será realizada por el Ayuntamiento, primeramente, mediante el contraste de las solicitudes recibidas a través de Lanbide con los requisitos solicitados; y posteriormente, mediante la realización de pruebas de idoneidad y la valoración de los méritos acreditados por los/as aspirantes previamente seleccionados.

El sistema de selección a utilizar será el concurso-oposición, en los términos que se especifican en los apartados siguientes.

## 4.- REQUISITOS DE LAS PERSONAS A CONTRATAR.

### 4.1.- REQUISITOS GENERALES.

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para ser admitidas:

a) Estar inscrito/a en Lanbide- Servicio Vasco de Empleo.

b) Personas menores de 30 años.

c) Deberán cumplir con los requisitos de titulación descritos en el punto 4.2.

d) Cumplir con los requisitos necesarios para poder formalizar un contrato formativo para la obtención de práctica profesional, es decir, haber terminado los estudios de grado en los tres años anteriores a la contratación.

e) Euskara: acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (equivalente a EGA). Dicha competencia podrá acreditarse de la siguiente manera:

- Presentando el certificado correspondiente o

- Realizando la prueba que con ese objeto realice el Ayuntamiento de Eskoriatza (la acreditación obtenida no tendrá valor alguno fuera de esta convocatoria).

**4.2.- REQUISITOS ESPECÍFICOS DE TITULACIONES.**

De conformidad con lo dispuesto en la base 4.1.c), las personas aspirantes deberán estar en posesión de las titulaciones detalladas a continuación o de la titulación equivalente:

- Grado en ciencias artísticas, sociales o de la educación.

## 5.- CAUSAS DE EXCLUSIÓN.

Serán causas de exclusión, no cumplir los requisitos generales y específicos establecidos en la base anterior.

## 6.- INSTANCIAS.

Las solicitudes se presentarán en las oficinas de LANBIDE o telemáticamente en la web de LANBIDE. Plazo: Hasta el 27 de setiembre (inclusive)

## 7.- SELECCIÓN FINAL DE LAS PERSONAS CANDIDATAS.

Para la selección de la persona a contratar, que deberá cumplir los requisitos establecidos en la base 4 de esta convocatoria, se realizará el siguiente procedimiento:

7.1. Se procederá a la publicación de la convocatoria en la página web municipal para que las personas que cumplan con los requisitos establecidos procedan a inscribirse en Lanbide, en el plazo que se establezca en la convocatoria.

7.2. LANBIDE realizará la preselección de las personas candidatas, en base a los criterios establecidos.

7.3. Los currículos vitae de los candidatos preseleccionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo se remitirán a este Ayuntamiento.

7.4. La selección final de candidatas/os será realizada por el Ayuntamiento, realizando pruebas de idoneidad y valorando los méritos acreditados por las personas candidatas.

## 8.- TRIBUNAL.

El tribunal calificador de las pruebas de selección estará compuesto por las personas miembros que a continuación se indicarán.

Para las pruebas en que se estime necesario el Tribunal podrá nombrar asesores/as.

**Miembros:**

**Presidenta**

- Técnica de cultura

**Vocales**

- Técnica de euskara
- Responsable de biblioteca
- Empleado/a propuesto por representación sindical

**Secretaria/o**

- El de la corporación o funcionario/a en quien delegue

## 9.- PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN.

**FASE OPOSICIÓN**: Entre las personas aspirantes que reúnan todas las condiciones se realizará la selección a través de una o varias pruebas de carácter eliminatorio, relacionadas con las funciones del puesto.

El lugar, fecha y hora se publicará en la página web del Ayuntamiento, conjuntamente con la resolución que apruebe la lista definitiva de personas admitidas y excluidas al proceso selectivo.

La no presentación de una persona a cualquiera de los ejercicios en el momento de ser llamado determinará automáticamente el decaimiento de su derecho a participar el proceso.

Constará de dos partes:

**1ª PARTE: Obligatoria y eliminatoria**.

Realización de uno o varios ejercicios de carácter teórico y/o práctico. Podrán realizarse de forma sucesiva en la misma jornada, pudiendo otorgar el tribunal un tiempo de descanso entre ejercicios a las personas aspirantes.

Se valorará hasta 60 puntos y deberá lograrse una puntuación mínima de 40 puntos para aprobar.

**2º PARTE: Obligatoria y eliminatoria**.

Aquellos que superen la primera parte, presentación oral de los ejercicios anteriores en una entrevista ante el Tribunal.

Para la valoración, el tribunal tendrá en cuenta los siguientes criterios:

- Claridad expositiva (facilidad para entender y seguir el discurso, buena estructuración de la exposición).
- Capacidad de síntesis y de adaptación al tiempo disponible.
- Capacidad de argumentación (en la exposición y ante comentarios y preguntas)

Se valorará sobre un máximo 20 puntos y deberá lograrse una puntuación mínima de 10 puntos para aprobar

**FASE CONCURSO**: En esta fase se valorarán los méritos alegados a aquellos aspirantes que han superado la fase completa de oposición (pruebas + entrevista), con un máximo de 18 puntos, atendiéndose a los siguientes criterios:

**a) Titulación**: Por la posesión de titulación relacionada con la materia y diferente a la que sirve de requisito y en la que se fundamenta el contrato, se puntuará conforme al siguiente baremo:

- Máster universitario oficial o estudios de post-grado: 5 puntos
- No se valorarán aquellas titulaciones que hubiesen sido la vía de acceso a la titulación requerida.

**b) Cursos**: Se valorará hasta un máximo de 3 puntos, por la participación en cursos de formación o perfeccionamiento convocados, organizados, impartidos u homologados por institutos o escuelas oficiales, empresas o agentes sociales que estén directamente relacionados con las funciones de la plaza convocada, siempre y cuando su duración hubiese sido superior a 20 horas:

- De 21 a 60 horas, 1 puntos
- De 61 a 90 horas, 2 puntos
- Mas de 90 horas: 3 puntos

**c) Experiencia laboral:** Se valorará hasta un máximo de 10 puntos, la experiencia laboral directamente relacionada con las funciones de la plaza convocada:

- Hasta 3 meses: 2 puntos
- Hasta 6 meses: 4 puntos
- Hasta 12 meses: 6 puntos
- Hasta 18 meses: 8 puntos
- Hasta 24 meses: 10 puntos

## 10.- PROPUESTA DEL TRIBUNAL

La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos que ha obtenido y esa suma decidirá el orden para primar a los/las aspirantes.

En caso de empate, tendrán prioridad:

1. Las personas empadronadas en Eskoriatza.

2. Las personas más cercanas a la edad de 30 años.

Si el Tribunal apreciara que ninguno de los aspirantes reúne los requisitos mínimos necesarios para el correcto desempeño de las funciones del puesto, podrá declararse desierta la contratación.

Las personas aspirantes que cumplan todos los requisitos exigidos y no sean contratados quedarán en lista de espera, de forma que, en el caso de que existan bajas entre las personas inicialmente contratadas en esta convocatoria, puedan cubrirlas.

## 11.- CONTRATACIÓN

El Órgano competente contratará a la primera persona de la lista que se confeccione por un periodo de 12 meses, a jornada completa.

## 12.- INCIDENCIAS

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del Concurso-oposición, en todo lo no previsto en las bases y en la legislación de aplicación supletoria.

## 13.- IMPUGNACIONES

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados, en los plazos y formas previstos en la Ley del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones

## 14.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

El tratamiento de la información se ajustará a lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales recogidos en la solicitud de admisión serán tratados con la finalidad de la gestión de las pruebas selectivas y las comunicaciones necesarias para ello y del análisis y estudio de los datos relativos a estos procesos selectivos.

El nombre, apellidos y número del documento de identidad se publicarán respetando la anonimización exigida en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. El Ayuntamiento de Eskoriatza tomará medidas para que esa información no sea indexada por los buscadores de internet.

Los derechos de protección de datos de los solicitantes se podrán ejercer dirigiéndose al responsable del tratamiento por vía electrónica a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Eskoriatza o presencialmente a través de la red de oficinas de asistencia en materia de registros.

En caso de incumplimiento del responsable del tratamiento, los interesados podrán reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.